



Zenbaki osoak

Erreparatu termometroei eta idatzi zer temperatura markatzen duten.




Erreparatu bulegoen eraikin bateko igogailuaren eskemari eta idatzi zer solairutara iritsiko zaren kasu bakoitzean.



Zenbaki osoen zuzena

Idatzi zer zenbaki adierazten duen letra bakoitzak.



• A = _____

• C = _____

• B = _____


• D = _____

Idatzi zenbaki bakoitzaren aurrekoa eta ondorengoa.

_____ ◀	+2	▶ _____	_____ ◀	-1	▶ _____
_____ ◀	+4	▶ _____	_____ ◀	-3	▶ _____
_____ ◀	+6	▶ _____	_____ ◀	-5	▶ _____
_____ ◀	+8	▶ _____	_____ ◀	-7	▶ _____

Koordenatu kartesiarrak


Idatzi zer koadrantetan dagoen puntu bakoitza eta zer koordenatu dituen.



- | | |
|-------------|-------------|
| • A ▶ _____ | • F ▶ _____ |
| • B ▶ _____ | • G ▶ _____ |
| • C ▶ _____ | • H ▶ _____ |
| • D ▶ _____ | • I ▶ _____ |
| • E ▶ _____ | • J ▶ _____ |

Koordenatu kartesiarrek

Osatu igogailuaren eskema eta ebatzi problemak.



- Leirek hirugarren sotoan utzi du autoa eta 4. solairura igo da. Zenbat solairu igo ditu?

Erantzuna: _____

- Mikelek 6. solairuan egiten du lan eta 8 solairu beherago uzten du autoa. Zer solairutan uzten du?

Erantzuna: _____

- Olatz 3. solairuan zegoen, eta 4 solairu jaitsi ditu biltegira joateko. Ondoren, 6 solairu igo ditu karpeta bat norbaiti emateko. Zer solairutan dago?

Erantzuna: _____

Pentsatu eta ebatzi problema hauek.

Hozkailu bateko izozkailuko tenperatura -4°C zen eta 5 gradu igo da. Zer tenperatura du orain?

Erantzuna: _____

Goizean termometroak -2°C markatzen zuen, eta orain, berriz, $+3^{\circ}\text{C}$. Zenbat gradu igo da tenperatura?

Erantzuna: _____